

NOR OTE DA BURU RUSIAN?

Aspaldi ontan, Mosku'ko giroan aldaketa atzea dabil, Stalin il zane-
nik, ango politika, asiro ba-da
ere, bide-zuntz aldatzen doa eten
bage. Amar urte ontako yoneto-
riak osokiro begiratzen baldin ba-
ditugu, ukacizina da Rusia'n politi-
ka egokituz doala, geroago ta zen-
tuzkoago ageri zaigula. Demokrazi
bidean doala uste dute batzuk, gi-
zon bakar baizuen yokoa ote dan
beste batzuk...

Nikita Krustxev bere agintaritzak
aldidua ikusiz, amaika ikaratu
dira lengo giro txarra berriz gara-
ruko ote dan beldur. Baiñan gauzak
beren bideetatik bareki doaz, ezta
ikusten inolako bide-okertzerik,
ezelako zalapartarik. So-egille asko
arriturik daude ez baidute ulertzen
zer gaitik edo zertarako erazti du-
ten Nikita K. Ainbeste «Kremli-
mologo» ta «rusologo» or dabiltz
adikuzun baten bila, zer yazo dan eta
zer yazoko dan adierazi naian, Ni-
kita K. agintari bakar ta aitza era-
tzita ta gurtia bare-bare, len bezela...
Stalin'en itzala suntzitu zuan gizon
burukalaria erori ta ezer aipagarri-
rik gertatu ez... Or dago misterio
iflunaren korapilloa, ainbeste berri-
lari ta politikarik lokatu ezin duten
korapilloa.

Eslobatarran arima ixilkorrak beti
izan du olako misteriozko laño bat
inguruan, beti agertzen zaigu ezku-
tukuzun batean sartua, sarkaldeko
begi-belantziat adigatza, urrun-
tasunez estalitate zerbait bezela.
Ontatik sortu zaizkigu titulu berri-
din «kremlimologo» oiek, naizta len
bezin lañoiki uzten dizkiguten erri-
sitarren berriak.

Baiñan, orren gaitz ote da bene-
tan, ango berrien aria artzea? Na-
barimena ta armenia urri ez ote
ditugu? Zabalki ta zorrozki eraba-
te bezelaz badugu, Mosku'ko
politikaren aria argiogo ta zentzago
yarrari dezakegula uste dut. Begira
dezagun: alde batetik, U.R.S.S.'ko
izatearen giltza gizon bakar batean
eskuetan edo gogo-soillan eztagoa
na argi ageri da. Bestetik, Stalin'en
eriotza ondoren gertatutago agintari-

aldaketak guztiak (Berria'ren garbi-
tzea izan ezik) ein berekoak izan
dira. Norbait illunpetik egitura-
ziki izan balira bezela. Osokiro be-
giaruz, Mosku'tarren politika or-
tuzentuz azazutako bide batetik ba-
loala bezela ageri zaigu: lenen, Sta-
lin'en itzala ta berakin batera lengo
gelegikeri guztiak gaitzetsi erriaren
aurrean, baiñan ez arripataka, asi-
ro ta ondo ausnartu ondoren baizik,
baita erriaren egoera zerbait lasaitu
ere, sogoerregi loturik zeudenak
emekel ba-da ere zerbait lokatu. Bi-
garren, komunista ezturen aginterri-
kin bizkildetza iragarri ta batean
keñtu ta bestean mutur, ortara ale-
gindu. Ta irugarren... irugarren zer
ote? Norbaitzuen aburuz, demogra-
zia jarretza izan liteke. Ala izan bedi.

Politika orrek, odol-otz eta gogo
sendodun gizon baten ametsa diru-
di; gizon batena diñot, geienetan
orrela gertatzen bait-da. Demokrazi
naiz indar-eskudun agintaritzetan,
geienetan, gizon bat edo bakan ba-
tuzuen eragiña garaitzen da. Aldea
ontan izaten da: eragin ori beste-
enen aurka yarri edo besteenen la-
guntzaz Edonola ere, agintariaren
eragiña politikan, aundia izan oi da.
Begira Eisenhower edo Kennedy edo-
ta areago Adenauer edo Erhard,
biok alderdi batekoak. Bereala agen-
tzen da gizonak bere egñeri ema-
ten dien anasa, bere pentsamenaren
eragiña. Bai, URSS'ko politikaren
ariak, gizon zuur eta zentzundun
baten eragiñekoa dirudi ta ez gazte
berrit alle edo aldezalzele suztuak
eramana. Gaur Mosku'ko suari pu-
zigiten diona, gizon zuuru da noski,
nun dagon eta nora doan ond
dakiena ta gauzak bere burua ager-
tu bage egiten maite duana. Ond
ezagutzen ditu bai Rusia baita sar-
kaldeko erriak ere. Oarmen zorrot-
zko norbait da alegia.


Ondo azterzen baldin badugu
K'ren yokera bere agintaritza zear,
laster oartuko gira K. ez dala izan
berak egin duan politikaren sortea-
raze. Askok ezitio ukatuko zintzoki
agertu dala munduaren aurrean,
illunpe ta eskutu-une bageko gi-

naren irudi bezela. Politikari iza-
teko, tolesbageegi, odolberoegi.
Odol-otz eta gogo izarikoz izatek
ein urrunago zegoen izatera.
Oñaztari bezela, yusturi-otz bezela
agertu zaigu beti. Igan urteetan be-
ti esan dut eta orain areago, Niki-
ta'k agerretazten zuan politika bes-
te norbaiten gogoan sortua ta aus-

Molotof, Kaganovitx, Bulganin, Yu-
kov, Kruschev eta beraien inguru-
koak, ixil-ixilik yuan zaizkigu, al-
kate bat bere udalburuzatik beze-
la. Arrigarria benetan Mosku'n ger-
tatzen dana ta areago gizonen yo-
keraz oartzen otzige diranentzako.
Zaar guztiak bat-ekik, uts egin
dute ta eraziak izan dira, Gazteen

na. Bear-bada, gizon ori ezta erri-
sitarra odolez, ezta eslobatarrare,
armeniarra baizik: Mikoyan, zaar
guztien artekig gelditzen dan baka-
rria, beti atze-kamarren agertzen
dana baiñan beti aurrean dagona
¿Zer ote da bere iraunkortasuna-
ren ofiarria? Nagusikeri zale ez izai-
te ori noski. Orixe gaitik Stalin'ek
etzun itioiz zokortu ta orixegaitik
gizaldi berriak yarratzen dio ageri
danez.

Mikoyan izan da Rusia'ri mun-
duko atean iriki dizkiona. Bera izan
da Inglaterran, Ipar Amerikan, Cu-
ban, Afrikan, Asian eta edonun bi-
de-irratzaille egin ondoren nagusi
ageri ziranak bidali dituna. Bera
izan da eskierki, URSS'ko politika
bide berrietan sartarazi duana ta
bera izan liteke egunen baten erri
oiek demokrazi bidean yarri ditza-
keana. Geroak esango du ustekizun
au noraino egia dan edo izan lite-
ken. Labangarria da politika arazo-
tan iragarie izatea, baiñan aspaldi-
ko urteotan sumatua dut Mikoyan
dala Rusia'ko izatearen itxileko era-
gille ta agian, mende ontako gi-
zonik bereizienetako, izena ez ager-
tzeak epaitu dio izanari ezer ken-
tzen.



LENENGO ARRERA KREMLIN'EN KRUXEB GABE

nartua zala. Eisenhower'i bere agin-
taritza bezela K'ri ere argi azki
ageri zitzaion ifloren aginduko za-
la: gaur aurreragi, biar atzeruntz
eta etzi bare, lokarri bati lotua ze-
billela zirudien, azazutako bide ba-
ten zear. Ala ere, K'k, kondairan
izen bereizi bat irabazi du.

Rusian, beste leku askotan beze-
la, agintetza inguruan burruka go-
gorra izan da beti, nork garaitu yo-
ko latza. Baiñan oraingotan ezta
berdin gertatzen: banan banan eta
zalaparta bage uzten du bere aukli
agintari bakoitzak eta ezta yazarpe-
nik ondoren. Norbaitek ixilik egi-
ten duala dana dirudi. Partiduko
komite nagusiak? Ala izango da bai-
ñan komite ori gizon biltzar bat
izanik, norbaitek sarrerazi du ber-
tan erriarritzen artean berezko ez-
tan yokera ori. Ez dut uste gazte
berrien eragiña izango danik. Sta-
lin ill eta bereala yarri bait-zan yo-
kera ori. Beria'ren auzia landa utziz,
dana izan da berdin: Malenkov,

artean ezta ageri oillarrik. Gaur
esan liteke. Rusia'n eziala iflor ere
buru, agintari gellen, gogapen bat
edo ustekizun bat baizik. Eta be-
rau ere, ezta ifundik ere Stalin'en
garaitetako. Baiñan gogapen eta us-
tekizunak gizonen emaitz bait-dira,
norbait izan bear da oien arnas-
amaille. Mosku'n gaurko xedeetan
bereizienetako, nagusikerien aurka-
kooa da, persona gurizearen aurka-
koa. Xede ori, K'rena zalakotzat yo-
tzen zuten amaikak, baiñan naiko
zan bere itzaldi bat entzutea, ira-
kaspen ori iflor irakatzia zuala oar-
tzeo. Izan ere ontatxe aurkitu bait-
duteobundun bere auklitik kentze-
ko. Beraz etzan berea norkerien
aurkako gogapen ori. Eratzitako
beste agintariena gutxiago noski.
Ba-da norbait ixilpetik gauzak egi-
ten dakiena, erriarritak ondo eza-
gutzen dituna, erri oiek beste bide
batetik erotatek, Stalin'en eriotza
itxioiten egon ondoren zuurki baña
etenbage bere bidean aurrera doa-

NAZIO-ARTEKO UNEA

Europa bere lekuaren bila

Astebete ontan nazio-arteko goraberetan Europa'ri dagozkienak
dira aundienak. Batetik Elkarrekin Merkatarren sei kideak az-
kenean konpundu dira nekazari azaroak dantentzat berdin egiteko.
Bestetik berriz NATO'ko billera dala ta amerikanoak onartu era-
zi nai duten MLE (Askoen arteko indarra) delakoaren galñeean
sortu diran asarre ta estabaldagorrrak, frantzes eta alemanen
artean batez ere.

Bi gerriakizun berri, biak garrantziñunak, Europa'ren galñean
berriro pentsatu erazitzen dituten oietakoak. Ba liteke Europa'ren
galñean pentsatzea ta litzegitea topiko bat izatea. Demokraziaren
galñean eta askatasunaren galñean litzegitea topiko bat dan be-
zela. Ala ere sala galñean Europa'n gertatzen ari diranen galñean
pentsatzen.

Europa'k dauzkan profema guztiak bakarrik konpundu dira.
Bere burua defenditzea dala, nekazari galak konpontzea dala, edo-
zelik gauza dala, gero ta geroago zaillago zala Europa'ri bakarta-
sun utsean jarraitzea. Ba dirudi gero ta zaillago zalola gizonari,
nazio bakoitzari gertakizunen kontrola eskurartean izatea. Kus-
rik munduko arazoen konponketa ta kontrola ekonomia ta finanza
indarren atzean dandela gizon solla, gizon arrunak ez du nese
ezter lezakenik bere erriaren goraberetan. Berriro gogoratu bearra
dugu ez dala gizona istoriak egindakoa, gizonak istoria egin de-
zakela ordea.

Polliki polliki nazioen artean artu-emanak zabalitzen eta uga-
ritzen ari diran artean gizonak eta nazioak elkartzen joan bear
dute. Utopia da baiñan mundu guztiarako gobernu bat izango dan
oduaeren lizaropena izan bear dugu. Europa ortarako etapa bat
bestetik ez da. Orregaitik Europa egiterakoan, Europa'ren bata-
suna ta elkartasuna egiterakoan inola ere ez da ibilli bear Euro-
pa ixten, Europa'ren mugak gorotzen. Era ontan De Gaulle'n
joera kaltegarria da. Baiñan kontrakoa ere ez da ohea. Elkartzeko
ez da bearrezko kondizioa elkartzen diranak beren nortasuna gal-
tzea berri bat sortzeko. Are gelago ezin liteke benetako elkartasu-
nik sortu bakoitzak bere nortasuna gorde gabe. Eta Europa'k ba
du nortasun berezi bat eta ori da gorde bear duna. Ez bestena
baino ohea edo txarraoia dalako balzik eta bere laera defenditu
gizonak, lanerako prest daudenak. Eta zorionez, oraindik, oge-
l-arrazoel aundiekin galñera, nola amerikanoen kapitlak pixkana
pixkana europatarren ekonomia eskurartzen ditjoazten. Ori baino
kaltegarriagoa izango litzake europatarrek zearo amerikanizatzea.
Prolemak gogorrrak izan arren eta arrikuak aundiak ba dugu
lizaropena Europa'ren etorkizunean, bai helditu Europa'k tajuzko
gizonak, lanerako prest duadenak. Eta zorionez, oraindik, oge-
l-arraren gizaldian gizona dago istoriaren erdian, ekonomia-
er-
dian, gizartearen erdian. Bera jaun ta ez morrol.

RIKARDO ARREGUI

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL

DONOSTI'KO AURREZKITEGIAK

3.000.000 pezeta

BANATUKO DITU

ZOKETA	Sari bat 500.000	pezetako	500.000	pezeta
	» » 250.000	»	250.000	»
	3 sari 100.000	»	300.000	»
	10 » 50.000	»	500.000	»
	10 » 25.000	»	250.000	»
	20 » 10.000	»	200.000	»
	100 » 5.000	»	500.000	»
500 » 1.000	»	500.000	»	

GUZIRA 3.000.000 pezeta

ZOKETAN SARTUKO DIRA

Aurtengo Abenduaren 31'arteko libretak